

BALOREZKO PROPOSAMENA:

Guk nobedade modura etorkinei laguntzeko enpresa bat sortuko dugu horrela, beraien eguneroko elikadura hobetzeko otorduak eskainiko dizkiegu, arropa, lo lekua eta gainera bertako etorkinentzat lokalean bertan, mugikorrak eta internet sarea egongo dira atzerrian dituzten familiar eta lagunekin komunikatu ahal izateko.

Nahiz eta jakinaren gainean egon badaudela etorkinei laguntzeko ONG gehiago guretzat hori ez da kaltea izango. Halabaina, gure helburua ez baita etekinak ateratzea edota beste lehiakidekin lehia sutsuan egotea. Lehen esan bezala, gure helburu nagusietako bat ahalik eta etorkin guztiei laguntza bat ematea da.

Bestalde, jendea kontzientziatzea da beste helburuetako bat, hau da, inguruko pertsonen hausnarketa sakona egitea atzerrian dauden etorkin txiroen bizimoduaz. Honen ondorioa, bizi baldintza txarrez jabetzea izango litzateke, gehienetan ez baikara beraien sufrimenduaz ohartzen.